



DOKUMENTAZIO
ZENTROA

TXT 20 206

VIII Biltzar Nagusia
PONENTZIA OROKORRAREN ESKEMA

ORAIN DA GARAIA! ERAIKI DEZAGUN LANGILEON EUSKAL HERRIA

Aurkezpena

Kongresuak bi ponentzia izango ditu betiko legez. Baina berrikuntza txiki bat egin dugu antolakuntzari buruzko proposamenak bi ponentzietan jasoko ditugulako bi gaiak guztiz banatu beharrean. Gaur inoiz baino garrantzitsuago da antolakuntzak duen balio eta garrantzi politikoa nabarmentzea eta langileak antolatzeke erronka gure erronka politiko eta sindikalean artean kokatuz adierazi nahi dugu. Gure estrategia politiko eta sindikalaren adar bat da langileak antolatzea, eta horreterako eskaintza egoki bat egitea, ponentzia bakarrean uztartuko ditugularik bi gauzak.

Antolakuntza ponentziak ez du bere lekua eta bere garrantzia galtzen dena dela. Gure estrategia finkatuta, estrategia hori aurrera ateratzeko nola antolatuko garen eztabaidatzea guztiz beharrezkoa dugu eta hori da antolakuntza ponentziarekin erabakiko duguna. Kasu honetan berrikuntza izango da ez dugula gure organigrama osoa auzitan jarritz berri bat asmatzeko eztabaida egingo. Gaurko egituraketaren gainean egingo dugu eztabaida, zer zuzendu eta zer hobetu eztabaidatzeko azken kongresuan hartu genituen erabakiak eta lau urte hauek erakutsitakoa kontutan hartuz.

Gaur aurkezten duguna ponentzia orokorraren eskema da. Estrategia proposamen bat egiten dizuegu, estrategia hori garatzeko eztabaidatu eta erabaki behar diren elementuak finkatuz. Benetako eztabaida ponentziaren aurreneko zirriborroarekin egingo dugu, hor ikusiko delako eskeman jasotzen diren elementu eta ikuspegiaren gainean zein proposamen egiten ditugun. Baina ezin diogu eskemaren eztabaidari garrantzirik kendu, hemen finkatzen dugunaren arabera izango delako ondoren mamitu eta eztabaidatuko dugun estrategia.

Bukatzeko, goian agertzen den esaldia kongresurako proposatzen dizuegun leloa da. Adierazi nahi izan ditugun elementuak lau dira. Lelo nagusiarekin garai berria lorpen zehatzak eskuratzeko garaia dela azpimarratu nahi izan dugu. Eta bigarren esaldian gure strategiaren ardatzak jaso nahi izan ditugu: eraikuntza estrategia eta langilerian oinarritutako Euskal Herria. Lehenengo pertsonan formulatzen dugu langileria eta sindikalgiaren protagonismotik eraiki behar dugula adierazteko. Deialdi bezala formulatzen dugu hori delako egiten dugun eskaintza euskal langileei, eta horren alde egiteko deia egin nahi diogulako gure kidegoari kongresu honetan eta kongresu honen bidez.

Ostegunean egingo dugu guzti honen eztabaida. Baina ekarpenak, zuzenketa proposamenak eta aldaketa eskaerak gaurtik egin ditzazkeue noski. Ongi izan.

Komite exekutiboa

SARRERA

Kongresu honetan finkatuko ditugu datozen urteetan sindikatuaren interbentzioa zuzenduko duten erabaki nagusiak. Hori da kongresu guztien eginkizuna. Baina honek badu berezitasun oso garrantzitsua: Euskal Herriarentzat eta langileontzat historikoa den testuinguruan burutzen dugula eta gure etorkizunerako erabakigarria izango den garai oso bati begirako erabakiak hartuko ditugula.

Guztiok jabetzen gara momentuaren garrantzia ez ohizkoa dela. Prozesu politiko oso bat jarri dugu martxan gure Herriaren ukazioa eta zatiketa betikotu nahi duten Estatuaren gainetik. Euskal Herriak bere bidea egitea ekarri behar duen prozesua hain zuzen ere. Eta ez dugu edozein momentuan egin, kapitalismoaren historian inoiz ezagutu ez den krisi baten erdian egin dugu.

Krisiak inoiz baino ageriago utzi du Euskal Herriak ez duela bere etorkizuna ziurtatzerik gaurko egoeran. Gure etorkizun ekonomikoa auzitan dago, langileon bizi baldintzak kolokan eta premia bistakoa bada ere, ez ditugu behar besteko bitartekorik guzti honi aurre egiteko. Horrela ez dago etorkizunik Euskal Herriarentzat, eta jai daukagu langileok.

Baina inposatu nahi diguten etorkizun hau aldatzea gehiengo sozial zabalak konpartitzen duen borondatea da eta hori da Euskal Herriaren nagusitu behar den aukera. Kapitalismoak ez digu inolako etorkizunik ziurtatzen, bai ordea Euskal herritarren eskutik eta euskal eragileon ekimenez bide berri bat egiteak. Hori da euskal langileok dugun alternatiba, euskal herriaren etorkizun ekonomikoa ziurtatuko duen eredu ekonomiko berria eraikitzea.

Euskal Herriak estrategia ekonomiko oso bat behar du. Krisi honi Herri bezala aurre egiteko aukera emango diguna, gure etorkizun ekonomikoa ziurtatuko duena euskal ekonomia egituratzea eta garapen eredu zuzen batekin aurrera ateratzea lortzen dugulako. Eta euskal langileok klase estrategia berri bat behar dugu Euskal Herriak egin behar duen bide honetan gure klase interesak defendatzeko eta garatzeko.

Hauek dira LABek bereak egiten dituen bi erronkak, testuinguru historiko honetan borrokatuko dituen bi helburuak. Langileen artean indarrak bilduz eta klase aliantza berriak eraikiz egingo dugu, hor dagoelako eredu berri bat eraikitzeke ezinbestekoa dugun oinarria. Eta ireki berri den garai berriak eskaintzen dituen aukera berriaz baliatuz egingo dugu, Euskal Herriak bere bidea egiteko abian dagoen prozesu demokratikoan dagoelako, zalantzarik gabe, euskal langileok hainbeste borrokatu ditugun aldaketa politiko eta sozialak lortzeko aukera.

Inposatuko diguten egoera hau aldatzea behar beharrezkoa da, eta aldaketa posiblea da, orain da garaia. Euskal langileok izan gara ukazioaren kontra borrokatu dugunak Euskal Herria aldaketaren atarira ekarri arte. Langileok izan behar gara, zalantzarik gabe, aldaketa politiko eta soziala behartu eta bideratuko dugunok garai berri honetan ere.

VIII Biltzar Nagusi honetan erantzunkizuna eta anbizioa izango dira LABen gogoetak, eztabaidak eta erabakiak zuzendu behar dituzten ardatzak. Erantzukizuna Euskal Herriaren eta langilearen egoeraren aurrean. Eta anbizioa euskal sindikalgintzaren bidez momentu historiko honetan euskal langileok jokatu behar dugun paperaren aurrean. Eraiki dezagun langileon Euskal Herria.

LEHENENGO ATALA: EGOERAREN AZTERKETA

1. KAPITALISMOAK MARKATZEN DU LANGILERIAREN ETA EUSKAL HERRIAREN GAURKO EGOERA

1.1. Kapitalismoaren egoeraz eta bilakaeraz egiten dugun gogoeta

- Kapitalismoaren gaurko egoera ulertzeko klabe nagusiak.
- Kapitalismoa eredu bezala ez dago krisian.
 - o Ez dago auzitan, ez dago arriskuan, merkatua da jaun eta jabe.
 - o Aldaketa sakonak eskatzen dituen ziklo amaieran dago.
 - o Azken urteetako garapen eredu agortuta dago.
 - Garapen ereduaren oinarriak eta ardatzak aztertzen baditugu, gaur ez da posible horrela etorkizun ekonomiko bat eraikitzea. Ez da jasagarria, eta ez da bideragarria.
 - Maila lokalean eta nazioarte mailan gertatzen ari da hori.
- Gaur arte ezagutu dugun eredu kapitalista da krisian dagoena.
 - o Eredu soziala auzitan dago.
 - Krisian eskubideak kentzea erabaki estrategiko bat da, ez da momentu honetan ematen den baina hazkunde garai berri batean gaitutuko den egoera.
 - Sektore publikoa indargabetzea hautu estrategikoa da ere. Gaur egiten dutena biharko ereduaren oinarria da.
 - o Eredu politikoa ere.
 - Burujabetza eta demokrazia auzitan daude. Sistema finantzieroaren eta merkatuak dute boterea
 - Langileriari eta sindikalari dagokionez, gaur arte baliatu ditugun bitartekoei egoera aldatzeko ahalmena kendu diote

1.2. Krisi ekonomikoa Euskal Herrian

- KRISIAREN EZAUGARRI PROPIOAK.
 - o Azken hamarkadetako garapen ereduaren ezaugarriak.
 - o Euskal ekonomiak gaur dituen ezaugarri eta arazo nagusiak
- BURUJABETZA EZAK ETA ZATIKETAK NOLA ERAGIN DU KRISI HONETAN.
 - o Egoera eta eredu sozialaren ezaugarri eta arazo nagusiak.
 - o Eremu politiko, enpresarial eta sindikalaren egoera eta nola eragin du gaurko egoeran.

1.3. Euskal langileriaren gaurko egoeraren ezaugarri nagusiak

- Langabezia, prekarietatea eta bazterketa soziala.
- Atzerapauso nabarmenak itxurazkoak ziren aurrerapenetan: emakumeon egoera.
- Gazteak, emakumeak, pentsionistak, langabetuak... prekarizazio prozesua azkartu, zabaldu eta sakondu egin da. Gaur arte ezagutzen ez zirenak ikusten hasiak gara (7 famili etxetik botatzen dituzte egunero) egoeraren larritasunari dimentsio berria eman behar diogu.

1.4. Langile klasea eta sindikalariak

- Klase subjektuaren egoera.
- Eredu sindikalak: bakoitzak bere bidea egin du. Agortuta zegoena ez da langileriaren bitartekoa izan eskubideak defendatzeko. Borrokaren bideari eutsi diogunak langileriari aukera bat eman diogu krisiari erantzuteko.
- Erantzunaren eta erresistentziaren balioa azpimarratzekoa da, orain eta alternatibaren eraikuntzan ezinbestekoa delako.

- Baina sindikalgintzak estrategia eraginkor eta eraikitzaile bat behar du langileriaren aldarrikapenetan aurrera egiteko.
- Sindikalgintzak bere estrategiak eredu honen baitan definitu eta garatu ditu. Eredu honek eskaintzen zituen bitartekoekin eta joko arauekin. Ereduaren agorpenak sindikalgintza ziklo baten agorpena ekartzen du ere.
- Estrategiak berri behar dira, sindikalgintza instituzional eta paktistak porrot egin duelako; Konfrontaziozko sindikalgintza ez delako gai izaten ari kapitalismoaren erasoari behar adinako mugak jartzeko.

1.5 Datozen urteak ez dira hobeak izango

- Krisiaren aurrean aplikatzen diren neurriak egoera okertu besterik ez dute egiten.
- Atzeraldi berri baten aurrean gaude, enplegua suntsitzen, babes soziala murrizten eta eredu soziala txikitzen jarraituko dute.
- Euskal Herriko enpresak duten erresistentzia gaitasunak ez du oinarri nahikorik beste atzeraldi ekonomiko bati aurre egiteko. Enplegua suntsitzea, prekarizatzea eta zergak ordaintzeari uztea izan dira enpresa asko eta asko mantentzeko arrazoiak. Horrela ezin da aurrera egin.
- "Eredu ekonomiko eta soziala finantziatu behar da, sektore publikoak ez du gaitasunik eta sistema finantzieroak beteko du sistema sendotuz gero". Tesi honen arabera sistema finantzieroaren arazo guztiak diru publikoarekin gainditzea da egin beharrekoa. Datozen urteetan murrizketa gehiago langileentzat, diru publiko gehiago sistema finantzieroarentzat. "Eredu berria" finkatzeko urrats berriak lan munduan...

2. ALTERNATIBAREN ERAIKUNTZAK MARKATU BEHAR DU LANGILERIAREN ETA EUSKAL HERRIAREN ETORKIZUNA

2.1. Eraldaketaren bidea egitea da langileok dugun alternatiba bakarra.

- Krisiaren jatorria eta konponbidea nazioartean eta nazioz gaindiko egituretan dagoela esaten dutenen aurrean, herrietatik sortutako eta eraikitako alternatiben alde egiten dugu LABetik.
- Nazioarteko egituran ekonomikoen aurrean Herriak boterea berreskuratzea da egoera globalari eman behar zaion irtenbidea.
- Herriez osatutako eta herrietatik eraikitako European izango gara Herri gu ere.
- Langileriak bultzatu eta borrokatu behar duen eraldaketa prozesuan dago eredu aldatzeko aukera.
 - o Urratsez urrats egin behar den bidearen emaitza izango delako eredu berria eraikitzea.
 - o Langileria delako eraldaketa prozesuaren subjektua, langileak protagonistak diren eta protagonista egiten dituen bidearen emaitza izango delako eredu aldatzea.

2.2. Eraldaketaren bidea Euskal Herrian

- Euskal Gune Ekonomiko eta Soziala eraikitzea herri estrategia ekonomiko baten bidez.
- Eredua aldatzea klase estrategia eraginkor batekin.

BIGARREN ATALA: ALTERNATIBA ESTRATEGIKOA

3. EUSKAL ESTATU SOZIALISTA

3.1. Proiektua

- Proiektuaren esangura, garrantzia eta ezaugarri nagusiak.

3.2. Estrategia independentista berria.

- Estrategia independentistaren balioa, garrantzia eta gaurkotasuna langileriarentzat krisi honen erdian.
- Sindikalgintza independentistaren garrantzia eta balioa estrategia independentistarentzat.
- LABen hautu estrategikoa: Gehiengo politiko eta sozial barne biltzeko gaitasuna eta eskaintza izango duen mugimendu independentista berria sustatzea eta bere eraikuntzan parte hartzea.

4. LABen ESKAINTZA SINDIKALA

4.1. Burujabetza politiko eta ekonomikora eramango gaituen bidea.

- Burujabetza ekonomikoa. Aukera bakarra merkatuaren aurrean.
- Burujabetzaren bidea: euskal herritar eta eragileen ekimenez, guri dagozkigun erabakiak gure kabuz hartuz eta erabakiak aurrera ateratzeko bitartekoak eskuratuz.

4.2. Klase interesen defentsa eginez jorratu behar den bidea.

- Klase gatazka burujabetzaren bidean.
 - o Klase ikuspegi argi eta sendo batekin bultzatu eta bideratu behar dugun Herri estrategia ekonomikoa.
- Burujabetzaren bidea langileriak gaur dituen premiei erantzuten dieten erabakiak hartuz eta irtenbideak eraikiz jorratu behar dugu
 - o Balio eta dimentsio berria eman behar diogu langileriaren bizi eta lan baldintzak hobetzeari, arazo sozial eta ekonomiko zehatzei erantzuteari.
 - o Gaurko egoera zehatzek ikuspegi estrategikoarekin eraiki behar ditugun erantzunak eskatzen dituzte. Gaurko arazoei izaera eraldatzailea duten erantzunak ematen diegun heinean egingo dugu aurrera aldaketa prozesuan.

4.3. Eskaintza sozioekonomiko oso batekin jardunez.

- Egitasmoa: Bost ardatzak.

4.4. Egungo egoeran kokatuko behar dugun eskaintza.

- Garai berrian kokatzen den eta garai berri honetan ditugun helburui erantzuten dion eskaintza bat izatea.
 - o Trantsizioa egitea da helburua, trantsizio eredu bat eskaintzen dugu, langileriaren eta Euskal Herriaren beharrei erantzuten diena.
 - Herri ariketak egitea klase bezala ditugun beharren gainean.
 - Klase interesak defendatzea eskatzen duen bidea da.
 - Kapitalarekin akordioak egiteko aukeran oinarritzen da, akordio horiek ariketa soberanistak badira, akordio horiek langileriaren gaurko premie erantzuten badiete.
- Estrategia eraikitzaile bat proposatzen dugu sindikalgintzaren funtzioa interpelaziora mugatzea gainditzeko.

HIRUGARREN ATALA: GURE KOKAPENA FASE HONETAN

5. EGOERA GOITIK BEHERA ALDATU DA AZKEN LAU URTEETAN

- Langileon egoera aldatu da, aldatzen ari da, okerrera egiten ari da.
- Garai politiko berria ireki da Euskal Herrian.
- Garai berria baita mugimendu independentistan ere.
- Prozesu demokratikoa martxan da.
- Garai berria ireki behar da ere eraldaketa sozialaren bidean

6. ALDAKETA POLITIKO ETA SOZIALA FASE HONETAN

6.1. Euskal Herria arlo ekonomiko eta sozialean egituratu behar da

- Euskal Gune Ekonomiko eta Soziala.
- Lan Harremanetarako eta Babes sozialerako Euskal Esparrua.

6.2. Fase berria borroka honetan: Herri estrategia ekonomikoa.

- Oinarriak eta ardatzak
- Sektore arteko akordioen balioa eta ezaugarriak.
- Behar beharrezkoak ditugun herri akordioak.
 - o Enplegua.
 - o ...

7. KLASE ESTRATEGIA.

- Klase estrategia berritzeko eta eraginkortzeko momentua da.
 - o Testuinguru sozioekonomikoagatik
 - o Herri estrategia ekonomikoa garatzeko.
- Euskal langile klasearen ezaugarriei egokitutako estrategia.
- Klaseen arteko indar harremana aldatzeko premia.
- Gaurko lehentasuna: langileon bizi eta lan baldintzak agenda guztien erdian.
- Langileon protagonismoa. Langileok subjektu politiko nagusia.

8. ALDAKETAK BEHARTZEKO ETA BIDERATZEKO EREMU ETA BITARTEKOAK

8.1. Prozesu demokratikoa.

8.2. Klase aliantza.

8.3. Institutuzio politikoak.

8.4. Negoziazio kolektiboa,

8.5. Mobilizazio eta aktibazio soziala.

9. ALDAKETAREN SUBJEKTUAK

9.1. Mugimendu independentista.

9.2. LAB. Langileoaren antolakuntza apustu estrategikoa.

9.3. Aliantza sindikalak.

LAUGARREN ATALA: EGITASMO NAGUSIAK

10. EREDU EKONOMIKO ETA SOZIALA ALDATZEKO BIDEA MARTXAN JARTZEA.

- Eremu politiko, sindikal eta sozialaren arteko lankidetzaren eremuak zabaltzea.
- Lan Harremenetarako eredu berria.
- Eredua politiko eta instituzionala berritzea.
- Sektore Publikoaren defentsa.
- Urgentziarako akordioak.

11. LANGILERIAREN BIZI ETA LAN BALDINTZAK HOBETZEKO BORROKA

- Krisiari lantokietan eta kalean erantzutea eta gure eskubideak defendatzea lehentasuna.
- Bizi baldintzak: Eskubide sozialaren defentsa.
- Lan baldintzak: Enplegua.

12. LANGILERIA BILAKATZEA EUSKAL HERRIAK EGIN BEHAR DUEN BIDEAREN OINARRIA ETA PROTAGONISTA.

BOSTGARREN ATALA: ANTOLAKUNTZA ESTRATEGIA

13. GURE EREDU SINDIKALAREN OINARRI ETA ARDATZ BERRITUAK.

14. LANGILEON ANTOLAKUNTZA. BALIO ETA GARRANTZI ESTRATEGIKOA ALDAKETAREN BIDEAN.

15. GURE HEDAPENEAN ETA GARAPENEAN FASE BERRIA IREKITZEKO AUKERAK DITUGU.

16. DATOZEN BOST URTEETARAKO EGITASMO ORGANIZATIBO NAGUSIAK.